

FUNTSEZKO SOZINETATEAK

Gure proiektua aurrera eramateko ezinbestekoa da bakarrik ez jardutea. Inklusioa lortzeko, gure enpresak beste eragile ekonomiko askoren laguntza eta lankidetzat behar ditu. Horregatik, funtsezko sozietateak dira gurekin batera lan egingo duten pertsonak, erakundeak eta elkarteak. Haien bidez lortzen dugu gure zerbitzuek benetako eragina izatea eta gure balio-proposamena errealitate bihurtzea.

Lankidetzat horri esker, gure proiektuak dimentsio sozial eta kultural handiagoa hartzen du. Beste erakundeekin batera lan egiteak aukera ematen digu esperientziak eta ezagutzak partekatzeko, berrikuntza sustatzeko eta ikuspegi anitzak barneratzeko. Horrek gure zerbitzuak aberasten ditu eta komunitatearen beharrei hobeto erantzuteko gaitasuna ematen digu. Gainera, sare sendoak sortzen ditugu, konfiantza eta elkarren arteko errespetuan oinarritutako harremanak sendotuz. Horrelako aliantzek gure proiektuaren legitimazioa indartzen dute, gizartean eragin positibo eta iraunkorra lortuz. Gure enpresaren helburua pertsona ezgaituen bizi-kalitatea hobetzea eta gizarte inklusiboagoa eraikitzea da. Uste dugu aniztasuna aberastasun iturri dela, eta horregatik lan egiten dugu estereotipoak apurtzeko, errespetua sustatzeko eta aukera berdintasuna bultzatzeko. Gure jardueren bidez, gizarte osoari mezua helarazi nahi diogu: ezgaitasuna ez da oztopo, baizik eta ikasteko eta elkarrekin hazteko aukera.

Jarraian adieraziko ditugu zeintzu eragile ekonomikoekin lan egingo genuke:

- Gurekin lan egingo lituzketen enpresak noski gure sektorearekin zerikusia dituzten elkarteak izango lirateke. Hala nola, ONCE (ikusmen murrizpena dituzten pertsonen lan egiten du, eta ere desgaitasunak dituzten pertsonen lana eskaintzen die), APNABI (Bizkaian dagoen elkarte bat autismoa duten pertsonen laguntzen diena), Down Syndrome Fundazioa (down sindromea dituzten pertsonen lan egiten du), GAUDE (desgaitaun intelektuala duten pertsonen lan egiten du), ADEMBI (esklerosi anizkoita duten pertsonen lan egiten dute), AFISES (Sestaon) eta APDISA (Santurtzi) (desgaitasun fisikoa duten pertsonen lan egiten duten bi elkarte), Gureak (desgaitasuna duten pertsonen lana topatzen laguntzen dien elkarte), Lantegi Batuak (Bizkaiko enplegu-zentro berezia).
- Erakunde publikoekin ere lan egingo genuke, honela merkatuan posizio hobe bat lortzeaz gain inklusioa modu erraz eta efikazago baten bidez lortuko genuke. Erakunde hauek udalak (Erandioko udala adibidez), EAEko hiru Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritza izango lirateke.
- Hezkuntza-zentroak: hezkuntza-eragileak dira gure aliatu estrategiko nagusietako batzuk. Ikastetxeetan, publiko zein pribatu, (hala nola Erandio BHI, Alzaga ikastola, Ategorri BHI), Lanbide heziketako zentroetan (hala nola Tartanga LHII) edota unibertsitateetan (EHU, Mondragon Unibertsitatea, UNED..) egiten ditugun prestakuntza eta sentsibilizazio saioek jarrera-aldaketa sakona eragingo dute, eta desgaitasunaren inguruko ikuspegi inklusiboa txikitatuz lantzen lsgunduko lukete. Hezkuntza-komunitatearekin elkarlanean (ikasleak, irakasleak, irakasleak ez diren langileak, edota familiak, IGEak barne), enpatia, ulermena eta aniztasunarekiko errespetua sustatzea da gure helburua.


- Enpresak eta lan-erakundeak: Gure enpresarentzako, funtsezko aliatuak dira tokiko enpresak eta lan-erakundeak, irisgarritasun-aholkularitza eta sentsibilizazio-tailerrak behar dituztelako. Haien bidez, lan-ingurune inklusiboagoak sortzen dira eta gizarte-eraldaketa errealagoa bihurtzen da. ElkarCoworking gure lan-espazio posiblea izateaz gain, tokiko sare profesionalen gune estrategikoa da, eta gure proiektuaren ikusgarritasuna eta harreman-sarea indartzen ditu. Era berean, enpresa txiki eta ertainek gure tailerrak hartzeko prest egoteak aukera ematen du aniztasunarekiko jarrera positiboak zabaltzeko eta komunitatean eragin zuzena sortzeko, legedia betetzeaz gain (Ley General de Discapacidad).

ERRAZTU S.Koop.-en aliatu nagusiak dira tokiko enpresak eta lan-erakundeak, irisgarritasun-aholkularitza eta ingurune inklusiboagoak sortzeko laguntza behar dutelako. Horien artean daude irisgarritasun-diagnostikoak behar dituzten enpresak, ElkarCoworking gure lan-espazio posiblea eta tokiko sare profesionalen gunea, eta sentsibilizazio-tailerrak jasotzeko prest dauden enpresa txiki zein ertainak. Haien parte-hartzeak aukera ematen du lan-inguruneetan aniztasuna eta inklusioa modu praktikoa txertatzeko. Gure tailerrak eta zerbitzuak osatzeko, ezinbestekoak dira desgaitasunaren arloan lan egiten duten profesional independenteak. Horien artean daude psikologoak, pedagogo espezialistak, desgaitasunean adituak, KSHO (Komunikazio sistema handigarriak eta ordezkioak) eta komunikazio erraztuan trebatutako profesionalak, eta desgaitasuna duten pertsonen esperientzia propioa duten hizlariak. Haien ezagutza eta testigantzek gure prestakuntzei sakontasuna ematen diete. Gure enpresa aditu espezializatuen laguntzarekin arituko da, besteak beste, Purificación Echaburu Montoya (Zeinu hizkuntzan aditua).

Berriz, konpetentziaren aldetik, GUREAK Euskadiko enpresa-talde handienetako bat da, desgaitasuna duten pertsonen lan-integrazioan espezializatua. Enplegu babestua eta lagundua, prestakuntza profesionala eta hainbat ekoizpen-zerbitzu (industria, garbiketa, logistika, besteak beste) eskaintzen ditu. Bere jardueraren ardatz nagusia lan-aukeren sorrera eta pertsonen enplegarritasuna hobetzea da. Bestetik, Lantegi Batuak Bizkaiko desgaitasun intelektualaren arloan erreferente nagusietako bat da. Enplegu babestua, lan-tailerrak, prestakuntza eta lan-orientazioa eskaintzen ditu, batez ere desgaitasun intelektualak duten pertsonen lan-integrazioa eta autonomia pertsonala sustatzeko helburuarekin. Halaber, Gorabide, Apnabi eta Fevas Plena Inclusión bezalako elkarteek desgaitasun intelektualak edo autismoa duten pertsonen eta haien familien laguntzan jartzen dute fokua. Familia-laguntza eta orientazioa, eguneko zentroak, aisialdi inklusiboa, prestakuntza eta sentsibilizazio-jarduerak eskaintzen dituzte. Erakunde hauen lehentasuna pertsonen ongizatea eta familien sostengua da, ikuspegi komunitario eta sozialetik. ONCE erakundea, berriz, desgaitasun sentsorialaren arloko erreferente nagusia da, bereziki ikusmen-urritasuna duten pertsonen kasuan. Irisgarritasun bisualerako aholkularitza, hezkuntza-laguntza eta enplegu-programak eskaintzen ditu, pertsonen autonomia, inklusioa eta gizarte-partehartzea indartzeko helburuarekin. Azkenik, aholkularitza eta formakuntza enpresa espezializatuak ere badaude, tokiko zein estatuko mailan. Enpresa hauek desgaitasunari lotutako prestakuntza, irisgarritasun fisiko eta digitalaren ebaluazioak eta sentsibilizazio-saioak eskaintzen dituzte. Haien fokua enpresen barne-kultura inklusiboa hobetzea eta gizarte-erantzukizun korporatiboa sustatzea da.

Gure enpresa besteengandik bereizten da batez ere zerbitzu integralak eskaintzen dituelako. Hau da, gure konpetentziak banaka eskaintzen dituzten zerbitzu asko guk denak batera eskaintzen ditugu. Horrela, bezeroek ez dute hainbat lekutara joan behar, eta dena askoz errazago eta azkarrago egiten da. Gainera, guk badugu “atseden zerbitzua” izeneko zerbitzua, eta hori ez dute beste enpresa

askok eskaintzen. Zerbitzu honek familiei atsedeen pixka bat hartzeko aukera ematen die, eta aldi berean, desgaitasuna duen pertsona zaindu eta ondo dagoela bermatzen du. Gure ustez, hau oso garrantzitsua da eta gure enpresari balio erantsia ematen dio. Bestalde, nahiz eta Eusko Jaurlaritzak eta beste erakunde publikoek antzeko zerbitzu batzuk eskaini, guk badugu haiekiko alde handia:



Irudia 1.: www.centroalianza

burokrazia eta papereoa. Administrazioarekin izapideak egitea askotan motela, korapilatsua eta nekagarria izaten da. Dokumentu pila bete behar izaten dira, erantzunak berandu iristen dira eta prozesuak luzatu egiten dira. Guk, ordea, askoz azkarrago eta errazago funtzionatzen dugu. Ez dugu tramite infiniturik eskatzen, eta bezeroek ez dute bulego batetik bestera ibili behar. Gure helburua da zerbitzua ahalik eta arinen ematea, familiek eta erabiltzaileek denbora galdu ez dezaten eta laguntza benetan behar dutenean iritsi dadin. Horregatik guztiagatik, uste dugu gure enpresa aukera oso ona dela ingurune inklusiboago bat sortzeko eta pertsona guztien bizi-kalitatea hobetzeko.

Iturriak

- ADEMBI. <https://www.adembi.org/>
- APNABI. <https://www.apnabi.eus/?lang=eu>
- EUSKADI.EUS. <https://www.euskadi.eus/gizarte-zerbitzuak-mendekotasuna-mendekotasun-arriskua/web01-a2gizar/eu/>
- Euskal Herriko Down syndrome fundazioa. <https://www.downpv.org/eu>
- Fundación once. <https://www.fundaciononce.es/eu>
- GAUDE. <https://gaude.eus/>
- GUREAK. <https://www.gureak.com/eu/>
- Lantegi Batuak. <https://www.lantegibatuak.eus/eu/>
- Microsoft Copilot. (2026). Logotipo generado por inteligencia artificial para “Erraztu S.Coop.” [Imagen generada por IA].
- Ley General de Discapacidad. Real Decreto Legislativo 1/2013, de 29 de noviembre, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley General de derechos de las personas con discapacidad y de su inclusión social. <https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-2013-12632>

IRUDIAK

Irudia 1: <https://www.centroalianza.cl/img/personas-discapacidad-mental.jpg>